

# Adiskidetze zibila eta ekonomiaren erreforma ditu xede Ahmed Benbitourrek

Hura izendatu zuen atzo Aljeriako lehen ministro Abdelaziz Bouteflika lehendakariak

Erredakzioa / Donostia

**Ahmed Benbitour da Aljeriako lehen ministroa atzotik. Smail Hamdanik kargu hori utzi zuen, eta, ondoren, horren ordeko izendatu zuen Benbitour errepublikako lehendakari Abdelaziz Bouteflikak. Presidenteak Gobernu berria eratzeko lehen urratsa egin du beraz.**

ALJERIAKO lehen ministro berriak premiazko bi helburu izango ditu: adiskidetze zibilera estrategiari eta erreforma ekonomikoari eustea, herritarren bizi baldintzak hobetzeko.

«Behingoz egi bihurtu behar du adiskidetze zibilak, eta herrialdeko erakunde ekonomikoek egokitu egin behar dute garapen nazionalera eta nazioartekora», azpimarratu zuen atzo Ahmed Benbitourrek, lehen ministro zela jakin ondoren.

Herrialdeari buruz «irudi ona emateko» lan handia egin behar dela esan zuen Benbitourrek. «Bouteflikak iritzi hori du, alegia, lan handia egin behar dela irudi ona izateko herri barruan eta kanpoan; batik bat, Afrikan, mundu arabiarrean eta Mediterraneoan».

Aljeriako Gobernuan azken sei hilabeteetan izan den krisi politikoa konpondu da hein batean, lehen ministro Ahmed Benbitour izendatuta. Bouteflikak Gobernu berria aukeratzeko lehen urratsa ere bada. Hori datozen egunetan jakinaraziko duela espero da.

Gobernu berria osatuko dute Bouteflikaren aldeko koalizioa kideek. Apirilean



MICHEL GANGNE / EPA

Ahmed Benbitour lehen ministro berria.

AHMED BENBITOUR • Aljeriako lehen ministroa

## Bouteflikaren konfidantzazko ekonomilaria

### soslaia

Finantzan eta ekonomian aditua —Ekonomia Zientzian doktore da Montrealgo Unibertsitatetik—, bost ministro kontseilutako kide izan da 1991az geroztik. Hazienda ministro izan zen birritan 1993a arte: lehena, Sid Ahmed Ghzaliren gobernuan, eta gero, Belaid Abdessalamenean. Ondoren, Energia ardura izan zen Reda Malek lehen ministro zenean; eta beste bitan Hazienda ministro: 1994an mokdad Sifirekin eta 1995an Ahmed Uiahiarekin. Baina ardurako beste kargu bat ere izan du gaur arte. Liamine Zeroual lehendakari ohiak Nazioaren Batzordeko —Aljeriako Legebiltzarreko Senatua— kide izendatu zuen 1997an.

egin ziren hauteskunde ondoen hartu zuen lehendakari Bouteflikak, eta, orduan, lau alderdiren koalizioak eman zion babes: Batasun Nazional Demokratikoa (BND), Askapen Nazionalerako Frontea (ANF), Bakearen Aldeko Gizartearen Alderdia (BAGA) eta En-Nahda Berritze Alderdia.

Horko kideekin batera, Gobernu berrian izango dira «oposizio demokratikoko» bi alderditako ordezkariak: Kultura eta Demokrasiaren Aldeko Batasuna eta Aliantza Nazional Demokratikoa.

Hala ere, sei alderdi horietako kideetako inor ez da izango goi karguduna. Iturri politikoaren arabera, Bouteflikak oso konfidantzazko lagunei emango die ardura. «Superministroen» taldea eratu nahi du Aljeriako lehendakariak ministerio garrantzitsuenetan: Barne, Energia, Hazienda, Hezkuntza.

### Hirutan atzeratuta

Gobernu eraketa hirutan atzeratu du Bouteflikak, azken sei hilabeteetan: Afrikako Batasunerako Erakundeak uztailean bilera egin ondoren; irailean Nazio Batuen batzar nagusia eta gero, eta Adiskidetze Zibilera Legeari buruzko erreferendumen ostean, irailaren erdialdera.

Militarren adostasun eza-gatik gertatu da atzerapena, iturri politikoaren arabera. Bouteflikak guztiak ukatu du ordea.

Armadak garrantzi handia du Aljeriako politikan, nahiz eta ofizialki baztertuta dagoen.

### laburrean

#### VENEZUELA

##### ■ Berreraikitzea Chavezen gain

HUGO CHAVEZ Venezuelako lehendakariak berreraikitze lan erabateko kontrola bere gain hartu du Asanblea Konstituzionalak hartarako baimena eman eta gero. Oraindik erabat zehaztu gabe badago ere, oso litekeena da gerra ekonomia jartzea indarrean presidentek, Venezuelako egoera, azken egunotako hondamendi izugarriaren ondoren, erabat larria baita.

#### FILIPINAK

##### ■ 60 inguru hildako ferry bat hondoratzean

652 bidaiari zeramatzen ferrya hondoratu zen atzo goizaldean Filipinetako Bantayan kosta parean, Cebu eta Iloilo uharteren artean. 591 bidaiari bizirik atera zituzten inguruetan zeuden itsasuntzi eta txalupak, eta bederatzi gorpu ere bai. 52 gehiago zeuden desagertuta atzo arratsaldean. Kostazainek adierazi zuten, 614 lagunentzako lekua zuen ferryak, eta gehiago zihoazen.

#### ALJERIA

##### ■ 24 lagun hil ziren ofizialki herenegungo lurrikaran

HOGEITALAU lagun hil ziren herenegun arratsaldean Aljeria mendebaldean astindu zuen lurrikaran, Gobernuko iturri ofizialek jakinarazitako behin betiko datuen arabera. 49 zauritu daude obserbazioan. Hala ere, telebistak goizean adierazi zuen 28 pertsona hil zirela eta 175 zauritu. Richter eskalan 5,8ko indarra izan zuen lurrikarak.

**BILBAO BIZKAI UR PARTZUERGOA**  
**JENDEARENTZAKO OHARRA**  
Gaur, ostirala 24, eta datorren ostirala 31, bulegoak jendearentzat itxita izango ditugu.

**Lazkaoko ikastolak,**  
laguntza gelarako lanpostu bat betetzeko eskatzen du:  
Psikologian lizentziatua gehi EGA  
Curriculumak urtarillaren 10erako, San Benito ikastola, 20210 Lazkao.

BILBOKO UDALA AYTO. DE BILBAO

**OLENTZERO 99/ Abenduaren 24a**

11:00 Funikularren plazara heltzea.  
11:30 Udal agintarien harrera Udaletxean.  
13:15 \* Plaza Barrira heltzea.  
\* Olentzeroren harrera umei eta oparien banaketa.  
\* IKAS BIDE HAUR ABESBATZAREN emanaldia  
\* Dantza-ikuskizuna BETI JAI ALAI taldearekin

**IBILBIDEA:** Funikularren pl., Udaletxea, Udaletxeko zubia, Ibañez de Bilbao, Mazarredo, Kale Nagusia, Plaza Biribila, Areatzako zubia, Areatza, Askao eta Plaza Barria.

Bilbon, 1999ko abenduaren 23a  
KULTURA ETA TURISMOKO ORDEZKARIA

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**Kultura Sailak diruz lagundutako egunkaria**